



Kaixo DBH 3-4ko lagunak,

Elorrioko Txintxirri Ikastolatik idazten dizuegu. Dakizuen bezala HEL HORRI! lemapean guri dagokigu aurten Ibilaldia antolatzea. Azken urteotan Erronkak izan duen hauspoa ikusita, aurten bi ataletan banatzea erabaki dugu: batetik, eguneko Erronka eta bestetik, hizkuntza Erronka.

Hizkuntza Erronka hori dela eta esku-orri hau helarazten dizuegu erronkaren nondik norakoan berri emateko.

HEL HIZKUNTZARI! HEL HORRI!

0. Ekimenaren testuingurua

Elorrioko Ibilaldiaren helburua, lemak dioen moduan, Elorrioko ikastolak adar askori heltzea da: euskarari, bizikidetzari, hezkidetzari... Hizkuntzaren ikuspuntutik, euskaraz bizi, pentsatu, dibertitu, sortu... munduratzan ari garela erakutsi nahi dugu.

1. Ekimenaren helburu konkretuak



- Praktika erakargarri bat mahairatu nahi dugu, bereziki gazteak kontutan izanda, euskaraz ondo pasa, esperimentatu eta sormena lantzeko.
- Bizkaiko ikastola guztion elkarlana sustatu nahi dugu, ikasleak euskararen baitan murgilduz.
- Eredu bat, esperientzia bat, eskaini nahi diogu Euskalgintzari eta bereziki Ikastolen jaiei eremu soziolinguistiko desberdinetako partaideak izan arren.

2. Ekimenaren irizpide nagusiak

Ezarritako helburu konkretuak lortzeko LIBURU IBILTARIA sortuko dugu denon artean. Elorrioko Txintxirri Ikastolak emango dio hasiera liburuari eta gero, ikastolaz ikastola, osatzen joango da berriz ere Txintxirri itzuli eta bukaera eman arte.

3. Ekimenaren oinarriak

- Ikastola bakoitzak orrialde bat beteko du.
- Idazteko letra mota ARIAL izango da, eta tamaina berriz, 11.
- 15 lerro izango ditu zati idatziak, hau da, 120 hitz inguru.
- Idatzitakoak ezin du bukaerarik izan, hurrengo taldeak ipuinari jarraipena eman diezaion.
- Liburuak 20 orrialde izango ditu: lehen hiruzpalau (1-4) orrialdeak sarrerarako erabiliko ditugu; hurrengo hamalau (5-17) orrialdeak garapenerako izango dira eta azken hirurak (18-20) bukaerarako gordeko ditugu.
- Orri bakoitza bi zatitan banatuta dago: goian testua idazteko tartea eta behean, berriz, idatzitakoaren marrazkia egingo du ikastola bakoitzak, irakurri ezin duenarentzat.



-----Idazteko zatia

----- Marrazteko zatia

Ikastolen zerrenda hau da:

1. Txintxirri (Elorrio)	Abendua 9-13	11. Asti Leku (Portugalete)	Martxo 2-6
2. Zubi zahar (Ondarru)	Abendua 16-20	12. Itxaropena (Trapagaran)	Martxo 9-13
3. Azkue (Lekeitio)	Urtarrila 6-10	13. Zubi Zaharra (Balmaseda)	Martxo 16-20
4. Seber Altube (Gernika)	Urtarrila 13-17	14. Urretxindorra (Bilbo)	Martxo 23-27
5. Eleizalde (Bermeo)	Urtarrila 20-24	15. Abusu (Bilbo)	Martxo 30-Apirila 3
6. Larramendi (Mungia)	Urtarrila 27-31	16. Kirikiño (Bilbo)	Apirila 20-24
7. Ander Deuna (Sopela)	Otsaila 3-7	17. Eguzkibegi (Galdakao)	Apirila 27-30
8. San Nikolas (Algorta)	Otsaila 10-14	18. Andra Mari (Zornotza)	Maiatza 4-8
9. Betiko (Leioa)	Otsaila 17-21	19. Kurutziaga (Durango)	Maiatza 11-15
10. Bihotz Gaztea (Santurtzi)	Otsaila 24-29	20. Txintxirri (Elorrio)	Maiatza 18-22

4. Ekimenaren ekoizpena

Liburu erraldoia bukatzean, Ibilaldi egunean bertan, panel handietan ikusgai egongo da. Horrez gain, parte hartutako Ikastola bakoitzari liburu honen ale txikiago bat emango zaio oroigarri gisa.



5. Kudeaketa

Ikastola bakoitzak aste beteko epea du LIBURU IBILTARIA jaso, bere orrialdea bete eta hurrengo ikastolari emateko. Liburuaren ibilbidean kontuan hartu da aurreko zein hurrengo partaideak inguruko ikastolak izatea.

Liburuaren transferentzia eskuz esku egingo da, ostiraletan, eta hurrengo ikastolari emateko arduraduna ikastolak berak aurkitu beharko du. Halere, ezinezkoa bada norbait aurkitzea hurrengo ikastolari LIBURU IBILTARIA emateko, gurekin harremanetan jarri eta gu arduratuko gara.

KONTAKTUAK

- **Garikoitz Meabe**
ibilaldia@ehi.ikastola.eus Tel.: 685757460

- **Iraitz Erkiaga**
ierkiaga@elorriokoikastola.eus Tel.: 946582261